



## Iritsi dira saharar neska-mutilak, udako egunak gure artean igarotzera

**TOLOSALDEA** ▶ Denera,  
7 eta 12 urte bitarteko  
13 gaztetxo etorri dira  
aste honetan eskualdera

**HELBURUA** ▶ Desertuko  
temperatura altuak ekidin  
eta osasun arazoak  
sendatzea lortzen dute ▶ 3



Asteartean, herenegun eta atzo iritsi ziren eskualdera 13 neska-mutil sahararrak. I. TERRADILLOS

**LEITZA** ▶

## Uztaileko lehen hamabostaldian jende gutxi igerilekuan

Umeen Eguna eta Ur-Festa antolatu  
dituzte hilaren 21ean eta 27an ▶ 7



Atzo, eguraldia lagun, jende ugari izan zen igerilekuan. NAIARA GARZIA



ESTI EZEIZA

## Garraio publikoaren eta tren sozialaren alde

**TOLOSA** ▶ ELA sindikatuak deituta,  
manifestazio «umoretsua» egin zuten atzo,  
'Tren soziala bai, AHTrik ez' lelopean ▶ 2

**ELDUAIN** ▶

## Zeberio Kider-eko finalean

San Miguelekin  
batera ariko da ▶ 6

**villabona**  
optika



Sei hilabetetarako  
lentila eta likidoak

**89€**

Kale Berria 23A  
Villabona

Tel.: 943 11 18 40

GIZARTEA ▶

# Garraio publikoaren eta tren sozialaren alde, ELAk deituta

Manifestazio «umoretsua» egin zuten atzo kaleetan zehar hainbat herritarrek, 'Tren soziala bai, AHTrik ez' lelopean



Tolosako kaleetan barna manifestazioa egin zuten; Apeaderoan amaitu zuten. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Oria/Goierrri eskualdeko ELA sindikatuak deituta garraio publikoaren eta tren sozialaren aldeko aldarrikapena egin zuten atzo Tolosako kaleetan barna. 11:00ak aldera bildu ziren 100 lagunetik gora, eta modu umoretzuan AHTren aurkako manifestazioa egin zuten. Abiadura Handiko Trenaren aurrealdea irudikatzen zuen tramankulu bat prestatu zuten, eta honen atzetik «aberats itxurako jendea». Hauen atzetik, kate bat osatuz, eta puxikak airean zitutela trenaren atzetik joan ziren protesta eginez «Ez, ez, ez AHTrik ez, tren soziala bai» oihukatuz.

Eguerdiko hamabiak aldera, Apeaderoan bildu ziren denak

ekimena amaitzeko. Orduan, Mikel Noval ELAren exekutibako kidea eta arlo sozialeko arduraduna denak, hitz batzuek zuzendu zizkien han bildu zirenei, eta bukatzeko Iosu Olazabalek egun honetarako prestatutako zenbait bertso abestu zituen.

ELA sindikatuaren esanetan garraioa («arazo larri») bihurtu da Euskal Herrian. Honen ondorioz, Oria eta Goierriko eskualdea gurutzatzen duen N-1 autobidea, «kolapso» egoeratik oso gertu dago. Hala, beraien esanetan, «denek, administrazioak barne, onartzen dute, gutxienez, desoreka izugarria dagoela garraio mota honen eta bestelakoen artean». Erreperidera bideratutakoa gehiegizkoa dela aipatuz modu

honek berarekin dakartzan ondorio kaltegarriekin: kutsadura, gehiegizko kontsumo energetikoa, lur txikizioa... Hori dela eta, Euskal herriko garraioaren arazo larrienetako bat dela deritzote sindikatuek. Bestalde, honi irtenbidea emateko gauza berririk ez dagoela asmatu beharrik uste dute. Garraio publikoa ondo antolatuz, pertsonak eta merkantziak beste garraio motetara desbideratuta nahikoa dela aldarrikatzen dute sindikatu abertzalekoek.

Desbideratze horretan, batez ere ohiko ferrokarrila aipatu zuten, honi tren soziala deituz. Hau berritu eta bultzatzen dute ELAkoek. Izan ere, jende arruntaren iritzia kontuan hartu behar dela diote.

KULTURA ▶



Joan den urteko lehiaketako argazki irabazlea. HITZA

## 2008ko egutegia osatzeko lehiaketa

Tolargi eta Tolosagasak antolatu du; Natura eta Tolosa izango da aurtengo gaia

E. EZEIZA

Tolargi eta Tolosagasak 2008 urteko Tolosako egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu du. Argazkiek irudikatu beharko duten gaia natura eta Tolosa izango da. Bestalde, 2007ko argazki lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak ikusi nahi dituenak, ondorengo webgunean egin dezake: <http://picasaweb.google.com/tolosagasa/egutegi2007tolosagasatolargi>.

Hamairu pertsonak eraman ahal izango dute saria. Horietatik seik, urtebetez argia doan izango dute, eta beste horrenbestek, gasa. Irabazleak sari berezia izango du, honek, urtebetez argia eta gasa ez du ordaindu beharko. Dena den, saritua Tolargiko eta Tolosagasako bezera ez bada, saria 2006ko argi edo gasa fakturaren zenbatekoa ordainduko zaie, betiere, 600 euroko mugarekin. Gainera, hauek saria jasotzeko, 2006ko kontsumoaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

Saritutako argazkiek erabileraz ezberdina izango dute. Alde batetik, Tolosako 2008ko egutegi ofiziala egiteko erabi-

liko dira, eta bestetik, helburu publikoa duten ekitaldietan, Tolosako Udal Artxiboan gordetako direrarik.

Lehiaketan parte hartzeko zenbait baldintza bete beharko dituzte interesatuek. Alde batetik, tolosarrak izan beharko dira. Bestalde, parte-hartzaile bakoitzak nahi adina argazki aurkeztu ahal izango ditu, baina hauek denak, Tolosan ateratakoak izan beharko dute. Hauek aurkezteko azken eguna irailaren 28a izango da, eta lehiaketaren epaia datorren urteko urtarrilaren 11n emango dute jakitera. Honen berri jakiteko Tolosako Udalaren webgunean edo prentsa bidez egin ahal izango da. Dena den, antolatzaileak telefono edo posta elektronikoko bidez jarriko dira harremanetan irabazleekin.

Argazkiak aurkezteko formatua paper fotografikoa edo CDa izango da. Gehienezko neurria paperean 20x30 zentimetroa izango da, eta gutxienezkoa, formatu digitalean, 4 Mb. Argazkiak Tolargiko Pablo Gorosabel kalean duen bulegoan edo Arostegieta kaleko Tolosagasarenean utzi daitezke.

GUTUN@K ▶

## Zuzeneko tren Apeaderoan!

Zuzeneko trenak berriro apeaderoan geratzeko eskaera: gai honekin interesatuak dauden pertsonak berriro datoren asteazkenean, hilak 18 bilduko gara. Bilera 20:15ean

gingo dugu, Tolosako Kultur Etxean.

Jorratuko den gaia: neguko egutegian apeaderoan berriro geratzea eskatzeko ideiak ematea. Iraila gertu dagoenez, denbora gutxi daukagu martxan jartzeko. Beraz, mesedez etorri eta eskerrik asko.

MARIA PILAR HERAS ▶ TOLOSA

## BERRIAREN edizio digitalean diseinatzaile/programatzaile bat behar da.

Erreferentzia: 2007 EH-DP.

**Ezaguarrri hauek izan behar ditu:**

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio hizkuntzekin esperientzia izatea.
- XHTML eta CSSrekin maketatzen esperientzia izan behar du.
- Photoshop eta Flash programak ezagutu behar ditu.

**Eskaerak:**

- Hiru hilabeteko kontratua (luzagarria).
- Lanean berehala hastea (abuztuan).

Bidali curriculuma gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, uztailaren 20a baino lehen.

**ARAMBURU**

Salgai (Tolosa). Pisu Bizkaia kalean, guziz eraberritua (Sputnik dorrea), 44.500.000.  
Salgai (Tolosa). Pisu "La Estrella" erakinean.  
Salgai (Tolosa). Pisu Araba etorbidean.  
Salgai.  
Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarra.  
Salgai (Tolosa). Garajeak Leidor azpian.  
Salgai (Ibarra). Lokala Euskal Herria kalean.  
Alokatzeko (Selau).  
Apartamentua, 2 isola, 7 ohe, aire egokitua eta piszina. Hondartzaren ondoan.  
Alokatzeko (Tolosa).  
Pisu San Frantzisko kalean.  
Alokatzeko (Tolosa).  
Garajeak, Araba etorbidean irekia eta lurren eta San Frantziskon Ixia.  
Alokatzeko.  
Pabilioi industrialia. Leaburuko bidean.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

ELKARTASUNA ▶

# Gurean dira sahararrak

Denera, 7 eta 12 urte bitarteko 13 neska-mutil etorri dira eskualdera; bi hilabetez egongo dira gurean

IÑIGO TERRADILLOS

Urtero bezala, dagoeneko gurean dira saharar errefuxiatuen kanpamentuetatik etorritako neska-mutilak. Denera, 13 dira aurtengo Tolosaldeko familietan bi hilabetez egongo diren sahararrak. Hain zuzen ere, asteartean, herenegun eta atzo iritsi ziren Tolosara.

Gaztetxo hauetako batzuek ederki asko ezagutzen dituzte gure inguruko herriak, eta beraien bigarren familian egingo dituzte udako egunak, izan ere, aurreko urteetan ere izan dira gure artean. Beste batzuentzat, ordea, berria da esperientzia hau, baina seguru segituan ohituko direla gurera. Denera 13 izan badira etorri direnak, horietatik, 2 dira estreinakoz Tolosaldera etorritakoak. Beste guztiak errepikatzailak dira, beraz, baina familiei dagokionez, 5 dira berriak. Hain zuzen ere, Salamu, Salej, Mohamed Ali, Mohamed Moulud, Mohamed Salem, Abdala, Hali-fa, Abderhaman, Agida, Binaja, Muela, Maaluma eta Minetu dira gure eskualdean daudenak, ondorengo herrietan: Tolosan 9, Leaburun 2, Villabonan 1 eta Anoetan 1.



7 eta 12 urte bitarteko gaztetxo hauek bi hilabete dituzte aurretik gure eskualdean opor egunak igarotzeko. Baina, hori bai, lehenengo egunetan sendagilearenetik igaro beharko dute guztiak. Izan ere, errefuxiatuen kanpamentuetan ez dute baliabide handiegirik, eta horregatik, egiten zaien lehen-dabiziko gauza, mediku azterketa izaten da, han antzeman ez dituzten osasun arazoak sendatzeko, esaterako.

Lehen pausua emanda udaz gozatzea baino ez zaie geratzen. Horretarako, Sahararen aldeko elkarteek antolatutako irteerak eta Sahararen aldeko egunak izango dituzte besteak beste, eta atzokoan, adibidez, Txiki Parkera joan ziren.

## Ekimenaren helburuak

Haur sahararrak udan aldi baterako hartzeko Uda Bakean ekimena duela 11 urte sortu zen. Haurrak desertuko tenperatura altuetatik ateratzea, nutrizio akatsei aurre egitea, bi herrien arteko kultur harremanak sakontzea, familien arteko adiskidetasuna sendotzea eta euren egoeraz jabetzea eta gobernuen aurrean presioa egitea izaten dira helburuak.



Salamu eta Salej. I. TERRADILLOS

Asteartean, herenegun eta etzi etorri ziren saharar neska-mutilak. G. EIZAGIRRE

**ISKINA eta ETXEBERRIA**  
**edaritegia**

Goizean Salda  
Gauetan martxa! INTERNET

San Juan, 51 eta 59 ALEGIA • Tel.: 943653097

ALEGIA ▶ KARMEN JAIK

# Txintxarria hasi da dantzan

Joxe Gastesik Txintxarri abesbatzako zuzendari ohiak egin zuen herriko festen hasierako agurra

IMANOL GARCIA

Hasi dira Alegiko festak. Atzo arratsaldean eman zioten ongetorria Txintxarriari. Joxe Gastesi Txintxarri abesbatzaren zuzendari ohiak eta herriko historiaren biltzaileak egin zuen agurra. Imanol Irazustabarrena bertsolari gazteak, bere aldetik, bertsotan agurtu zuen plazan bildutako jendea. Aurretik buruhandi eta erraldoiek dultzaineroek lagunduta kalejira egin zuten. Bere aldetik, festa alternatiboetan 85 lagun elkartu ziren txosnagunean egindako bazkari herrikoian. Eguzkitsu hasi dira karmenak eta eguraldi onak lagunduko du gutxienez asteburuan.

Gaur ere hainbat ekitaldi izango dira. Egitarau ofizialean diana, arrantza lehiaketa eta tririndulari proba izango dituzte goizean. Eguerdian sagardo dastaketa trikitilariak alaituta. Arratsaldean herri kirolak eta ondoren zahagi ardoa. Gauean pilota partidak —sarrerek bost euro balioko dute— eta amaitzeko makro diskoteka. Alternatiboetan, arratsaldean txaranga, gauean kontzertuak eta amaitzeko festa Gaztetxean.



Joxe Gastesi agurra egiten ari zen momentu batean. Haur txiki batek erraldoien aurrean dantza egin zuen dultzainaren doinura. I. GARCIA



Alternatiboetan atzo bazkari herrikoia egin zuten txosnagunean. Herenegun eman zieten hasiera jaietako sagardo dastaketarekin. HITZA



Txupinazoaren ondoren, festa batzordeko kideek txapelak, goxokiak eta abar jaurti zituzten plazara. I. GARCIA



Erraldoi eta buruhandiak kalejiran ibili ziren. I. GARCIA

**Beti alai**  
jatekoa

Garaian  
garaiko janariak  
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementerri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

**Jogurta**

Mahala baseria - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

**Bidaia Agentzia**  
**bidaide**

Erribea, 6 behea  
VILLABONA  
Tel.: 943 69 26 93

Udara honetan Donostiatik Menorkara **zuzenean**  
**7 gau 339 €-tik aurrera**

## iragarki laburrak ▶

### SALGAI

**Etxebizitza.** Amezketan, 60 m2ko etxebizitza, bi trasterorekin. Bizitzera sartzeko moduan. 660 39 50 75. 17:00etatik aurrera.

### LANA

**Sukaldaria.** Iturriko jatebetean sukaldari laguntzaile behar dugu. Deitu 943 69 12 10 telefono zenbakira.

KUTXAREN GIZARTE EKINTZA - 2007 UZTAILA

# gizarte ekintza



Kutxaren Gizarte Ekintzak Atzegiren etxebizitzak martxan jartzea finantzatu du **kutxa**ren jabetzakoa den **Azpeitiko Antxieta etxean**

## Antxieta

### Ongizatea, pribatutasuna eta segurtasuna adimen-minusbaliotasuna dutenentzat

**A**tzegik (Gipuzkoako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko erakundea) sustatzen duen etxebizitza-zerbitzuaren filosofia da adimen-minusbaliotasuna duten pertsonen duintasunez eta ongizate- eta garapen-baldintza onetan bizitzeko eskubidea dutela, behar duten laguntza-maila handiagoa edo txikiagoa izan.

Horregatik, urtarrilaren 18an, Atzegik Azpeitiko Antxieta etxeko zenbait etxebizitza jarri zituen martxan adimen-minusbaliotasuna dutenentzat. Kutxaren Gizarte Ekintzak finantzatu ditu etxebizitzak oso-osorik, milioi bat euroko inbertsioa eginez, eta, gaur egun, zortzi lagun bizi dira etxebizitza horietan. Dena den, urtariletik aurrera 16 lagun biziko dira. Irune Boo da Atzegik Azpeitian, Aretxabaletan eta Eibarren babesten dituen etxebizitzaren arduraduna. Hark azaldu duenez, une honetan, hiru monitorea eta etxekoandere batek zaintzen dituzte etxebizitza horiek. Asko gustatu omen zaizkie han bizi direnei eta haien senitartekoei, Antxieta etxe barruari benetako etxe baten ezaugarri guztiak ematea lortu baitute. Hala, hainbat gela dituzte etxebizitzek, denak desberdin dekoratuta, eta jardura komunak egiteko zenbait leku eta sukaldea ere badituzte. «Ezaugarri horiek dituzten instalazioetan gehien baloratzen dena da adimen-minusbaliotasuna dutenei independenteki bizitzeko aukera ematen zaiela —azaldu du Book—. Beren kasa bizitzeak oso asebetetzen dituzte, nahiz eta zenbait laguntza behar izan. Adibidez, etxeko-lanak egiteak erraza dirudi, baina era horretako ardurak izatea oso pozgarria da haientzat, balioztatu eta aintzat hartzen dituztela sentitzen baitute».

Irune Book azaldu du oso antzekoak direla Antxieta etxeko etxebizitza berrietako eta edozein etxetako bizitza-erremioa. «Jaiki eta gosaldutan osten, denak eguneko zentroetara edo tailer okupazionalak —kasu honetan, Azkoitiko Gureak lantegira— joaten dira. Arratsalde



Etxeko zereginetan guztiak parte hartzen dute.

erdi aldera etxera itzultzen dira, askaria jaten dute eta aisialdirako denbora izaten dute. Norberari ongien iruditzen zaiona egiten dute: paseatu, telebista ikusi edo beste zenbait jardura egin». Book uste du nabarmen-tzekoa dela hau: «han bizi den pertsona bakoitzak behar dituen laguntzak jasotzen ditu. Izan ere, kontuan izan behar da pertsona guztiak ez dutela mendekotasun-maila berbera. Horrela eskaintzen dugu arreta hurbil eta pertsonalizatuena».

#### Nola jasotzen dute familiek era horretako zerbitzua?

Oro har, oso balorazio positiboa egiten dute, nahiz eta, hasieran, beren senitartekoa horrelako etxebizitza batean mendekotasunik gabe bizitzeari lotutako beldurrik eta errezerlorik handienak hurbilenekoek izan. Ondoren, etxebizitzak ikusi eta adimen-minusbaliotasuna dutenak oso pozik bizi direla egiaztatzen dutenean, iritzi aldutzen dute.

Hala, Lourdes Unanuek kontatu du (Inazioren izeba da; etxebizitza horretan bizi da Inazio, eta adimen-mendekotasuna du) Antxieta etxeko etxebizitza aurrerapauso garrantzitsua izan dela haren

#### Adimen-minusbaliotasuna dutenei independenteki bizitzeko aukera ematen zaie

#### Ostatu emateaz gain, haien bizitza-proiektua garatu nahi da

arazo nagusia gaintzeko; hots, Inazioren aisialdia nola bete asmatzeko. «Oso pozik nongoen Inazio nirekin zegoelako, baina aitortzen dut nahi zuten guztia egiten uzten niola, eta, gainera, ezin niola behar adina denbora eman, ezin bainuen uneoro harekin egon. Orain, Inaziok askoz ere hobeto igarotzen du aisialdia; ez hori bakarrik, zaintza eta arreta du beti. Zerbitzu ezin hobea da familientzat; kontuan izan behar dugu familia-ereduak gero eta gehiago alda-

tzen direla lanari, harreman pertsonalei eta eguneroko bizitzari dagokionez. Horrek asko eragiten du adimen-minusbaliotasuna duten pertsona baten arduratu behar baduzun».

Lourdes Unanuek gaineratu du, edonola ere, oso garrantzitsua dela pertsona horrek familia-giroarekin harremana ez galtzea. Horretarako, «Atzegiren etxebizitza-eredu hau ezin hobea da, etengabe gure senitartekoei harremanetan egoteko aukera ematen baitu». Horri dagokionez, Irune Book hau esan du: «etxebizitzetan ez dago ohiko egoitzetan zenbaitetan egoten den bisitaldi-erregimena. Senitartekoa nahi dutenean etor daitezke seme-alabak, anai-arrebak edo ilobak ikustera, eta han bizi den pertsona soilik etxetik ateratzeko bada, asteburuan kanpora joateko asmoa badu edo jatorduan etxetik kanpo egin behar badu, jakinarazteko eskatzen diegu».

Irune Book azaldu du lekuaren aldetik ez dutela arazorik izaten egunerokotasunean, eta, oro har, erabat ohikoa dela haien eguneroko bizitza. «Han bizi diren pertsonak gustura daude oro har, eta oraindik elkarrekin denbora gutxi

#### ongizatea

#### 130 lagunek erabiltzen dituzte Atzegiren etxebizitzak

Gipuzkoako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko erakundea (Atzegi) 1960an sortu zuten, eta, gaur egun, ia berrogeita hamar urte geroago, erreferentzia eta ezinbesteko bidaia-lagun bilakatu da adimen-minusbaliotasuna duten pertsonak duintasunez bizitzea, behar duten laguntza-maila handiagoa edo txikiagoa izan, gizarako partaide aktiboak izanez giza garapena izan dezaten eta, kasu bakoitzean, ahalik eta zeregin gehienak inoren beharrik gabe egiteko gai izan daitezten. Horregatik, adimen-minusbaliotasuna dutenek familiarik ez badute edo haiekin batera bizi ezin badute, Atzegiren etxebizitzek aukera ematen die ongizatean, gizar-tean, parte hartuz, intimitatean eta segurtasunez bizitzeko. Gaur egun, 130 pertsona inguruk jasotzen dute zerbitzu hori Gipuzkoan.

Hainbat ezaugarri komun dituzte etxebizitzek: gune eta arreta komunitarioak; babasaren ikuspegi pertsonalizatua; inoren mendekotasunik gabeko bizitza egiteko orientazioa; hautatzeko eskubidea errespetatzea; eta bizitza pertsonalaren proiektua bera egiteko joera.

eman arren, elkar hobeto ezagutzen ari gara, eta horrek atseginagoa egiten du elkarbizitzan».

ELDUAIN ▶ ERREMONTEA

# Patxi Zeberio Kider Txapelketako finalean Altuna II.a gaindituta

Elduaindarrak San Miguel lagun duela Ezkurra eta Olazar izango ditu arerio, gaur Huarteko Euskal Jai pilotalekuan

ASIER IMAZ

Gaur jokatu du Patxi Zeberio Kider Txapelketako finala Huarteko Euskal Jai frontoian. Zeberio II.a-San Miguel bikoteak, Ezkurra-Olazar izango ditu arerio, 16:00etan hasiko den jaialdian. Kider Txapelketako finala jaialdiko bigarren partida izango da eta 40 tantura jokatu dute. Patxi Zeberio eta San Miguelek finalerdietan Altuna II.a eta Iriarte gainditu zituzten 40-36ko emaitza estuaz. Lehen tantotik partida oso lehiatua jokatu zuten herenegun elduaindarrak eta amezketarrak.

## Zeberio II.a eta Altuna II.a

Jaialdiko bigarren partida jokatu zuten eskualdeko bi pilotariak Euskal Jai pilotalekuan. Lehiaren hasieran gorriek, Patxi Zeberioaren jokuari esker, aurrea hartu zuten. Zeberio II.a pelota gogor astintzen hasi zen aurreko kuadroetatik. Iriarte atzelaria estu hartuaz. Altuna II.a jokuan sartu zenean, berdintasuna iritsi zen markagailura, (6-6/10-10/11-11/12-12). Bi aurrelariak atzelariak zigortu nahian ibili ziren, tantoa atzean gorpuztuaz.

Patxi Zeberio bere erritmoa jartzen hasi zen orduan, Iriarte errebotetik erantzuteko ohi baino arazo gehiagorekin zebilen bitartean. Gauzak horrela, 6 tantuko aldeaz, (29-23/31-35) finalerdia erabakita zegoela zirudien. Orduan heldu zen ordea, amezketarraren berpizaldia. Altuna II.a pelota atzean



Patxi Zeberio Kider txapelketako finalean egongo da. HITZA

jartzen hasi zen, San Miguelen hutsak bilatu nahian eta urdinek markagailua berdintzea lortu zuten (32/32).

Partidako azken txanpa parekatua izango zela zirudienan, gorriek berriro ere bere nagusitasuna erakutsi zuten, 4 tantu jarraian eginaz eta 36-32 aurretik jarriaz. Errenta honi Zeberio II.a-San Miguelek amaierara arte eutsi zioten. Partidan zehar, Patxi Zeberio elduaindarrak 25 tanto egin zituen, Altuna II.a amezketarrak berriz 21 egin eta 2 galdu zituen.

## ZEBERIO II - SAN MIGUEL ▶ 40

## ALTUNA II - IRIARTE ▶ 36

**Markagailua.** 3-0/3-2/5-2/5-5/6-6/8-10/10-11/11-11/12-12/16-12/16-13/17-13/17-14/18-14/18-17/21-17/21-20/23-20/23-21/26-21/26-22/26-23/29-23/29-24/29-25/31-25/31-26/32-26/32-32/36-32/36-33/37-33/37-35/38-35/38-36 eta 40/36.

IBARRA ▶ MOTORRA

## Koldo Alonso Montmelon 24 orduko proban

Motorrekin eta erorikoekin arazoak izan ondoren ezin izan zuten proba amaitu



DBT Corse taldeko mekanikoak eta pilotoak Montmelon. HITZA

A. IMAZ

DBT Corse taldeko kide eta pilotoa da Ibarako Koldo Alonso. Joan den asteburuan Montmeloko 24 ordutan (Katalunian) parte hartu zuen bere taldearekin, nahiz eta zapo gazi-gozaorekin amaitu proba. Alonsoren taldeak 24 orduak bete aurretik amaitutzat eman behar izan zuen proba, motorrekin izandako arazoan ondorioz; «motoak Warm-up-ean huts egin zuten eta gure kide Txomin bota egin zuten gainetik, lepaustuia hutsi zuelarik. Honek larun-

bateko 13:00etan, piloto bat gutxiagorekin eta motor bat hautsita utzi gintuen. Espeprantz gabe ginela, Desmonton taldeak motor bat ekarri eta utzi zigun. Bi ordutan osatu genuen motoa eta 16:30ean irten ginen berriro ere. Baina gaueko 02:30ean, motorrak pott egin zuen, honen ondorioz, proba utzi beharrean aurkitu ginelarik». Ezbehar hauek jasan arren, etorkizunari begira ilusioz azaldu da Alonso, «hemen ez da amaitzen, barnean dugun amorrak proiektu berrietan pentsatzeko indarra eman digu».

LIZARTZA ▶

## Otaolaren aurkako elkarretaratzea

Regina Otaola herrira joan eta hurrengo egunean, atzo, elkarretaratzea egin zuten herritarrek, «plenoa burutu zuten eta herritarrei ez zigutena sartzen utzi» azalduaz.

AMEZKETA ▶

## Joxean Tolosa Txapelketako partidak, gaur

Gaur Euskal Herri osoko pilotariak XIX. Joxean Tolosa Txapelketa jokatu dute 10:00etan eta 21:00etan. Kadeteak, gazteak eta nagusiak Amezketan elkartuko dira.

hilberria ▶



## Julian Olaizola Guridi

jauna

Atzo hil zen, 75 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
-Goian bego-



Bere emaztea: Teresa Aranburu; seme-alabak: Juan Mari eta Ane Goñi, Iñaki; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusak eta gainerako ahaideek. Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitzetezela GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARIAREN ZERURATZAREN parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Bikuña auzoa 10, 1.B oharra ▶ hilbela Zumarragako Santa Isabel Tanatorioan egongo da.

LEGAZPI, 2007ko uztailaren 14a

HILBERRIAK  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
HITZAn jarri eta Gipuzkoako  
beste 4 Hitzetan DOAN  
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN  
120.000 IRUKURLE

ESKELAK  
19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ AISIA

# 15 egun hauetan bazkide gutxi izan ditu igerilekuak

Lehenengo hamabostaldian ez du igerilekura joateko eguraldirik egin eta hori bezero kopuruan asko nabaritu da



Goizean goizetik jendea hurbildu zen igerilekura, eguzkiaz eta uraz gozatzera. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Atzo eta herenegun eguraldi ona egin zuela aprobetxatuz herritar asko igerilekura joan ziren. Uztailearen lehenengo hamabostaldian ez du eguraldi onik egin eta horrek igerilekuan eragin zuzena izan du.

Maria Zabaleta igerilekuko arduradunak azaldu duenez «oso jende gutxi etorri da egun hauetan igerilekura. Kartetan jolastera eta kafea hartzera, etorri dira, baina bainu bat hartzera ez».

Aste honetan ere ez du igerilekura joateko moduko eguraldirik egin. «Egun batetik gorako txartel gutxiago egin ditugu. Normalean eguraldi ona egiten duenean jendea animatu egiten da adibidez 10 egunetarako txartela egitera, baina aurten lehenengo bi asteetan eguraldiak ez du horretarako aukerarik eman», dio Zabale-tak.

Bazkideen kopuruak ere bera egin du. «Duela bi urtetik honera bazkideen kopurua jaitsti egin da, lehenengo urtean da-

goeneko beheara egin zuen, eta aurten gehiago jaitsti da».

Atzo, ordea, udan ohikoa den eguraldia egin zuenez, asko izan ziren herriko igerilekura hurbildu zirenak. Bai gazteek, bai helduek eguzkiaz eta uraz gozatzeko aukera izan zuten.

## Umeen Eguna eta Ur-Festa

Egunerokotasun horretatik kanpo, Leitzako igerilekuan pare bat jarduera antolatu dituzte uda honetarako: Umeen Eguna eta Ur-Festa.

Umeen Eguna hilaren 21ean egingen dute, datorren larunbatean. «Guraso Elkarteak antolatuko du. Lehenengo urtean lehiaketak egin zituzten, baina aurten txirrista bat jarriko dute, baita puzgarriak ere», dio Zabale-tak.

Ur-Festa, berriz, hilaren 27an antolatu dute; «Gizarte Zerbitzuarekin elkarlanean antolatu dugu. Gaueko 22:00etan hasiko da, eta 00:00etan amaitu. Ordua kontuan hartuta 12 urtetik gorakoentzat da». Sarrerak dagoeneko salgai daude igerilekuan bertan, euro bat balio dute eta trukean, alkoholik gabeko «maitasun edari» bat emanen dute. Musikaz gain, Ur-Festa delakoan edari bereziak izanen dituzte salgai, bereziak ez eduki aldetik, ize-narengatik, baizik. Honela, printzipe urdina, erakarpin fatala, kilikagarria, edo obsesioa, hilaren 27an igerilekuan salgai izanen dituzten edariak dira.

Gainera, nahi duenak uretan sartzeko aukera izanen du. «Horretarako gauean 2 sorosle egonen dira lanean». Jokoak ere izanen dira. «Ziurrenik jokoez gain paraxut bat jarriko dugu». Aitzaki ederra izanen da udan gau batez igerilekuaz gozatu ahal izateko.

## UR-FESTA ▶

### EDARIAK

**Printzipe urdina.** Coca-cola.  
**Erakarpin fatala.** Nestea eta limoia.  
**Kilikagarria.** Anana zukua.  
**Obsesioa.** Kas laranja.  
**Desira.** Kas limoia.  
**Maitasun eza.** Ura.  
**Pasioa.** Aquarius laranja.  
**Goxotasuna.** Laranja zukua.  
**Retxazoa.** Melokototi zukua  
**Begirada sakona.** Sagarra zukua.

### PIKA-PIKA

**Musutxoak.** Lacasitos-ak.  
**Maitagarriak.** Bihotz formako gailetak.

LEITZA ▶

## Jose Javier Mugicari omenaldia egingen diote

20:00etan meza egingen dute, ETAK erail zuen lekuan lore sorta utzi ondoren

### ERREDAKZIOA

UPNk gaur Jose Javier Mugicari omenaldia egingen dio bere erailketaren seigarren urteurrenean. 20:00etako meza eta eraildako lekuan lore sorta, horiek izanen dira gaurko omenaldiaren bi ekitaldiak.

Bi ekitaldi hauekin UPNk Jose Javier Mugicaren erailketaren 6. urteurrena gogoratu nahi du. UPNk adierazi duenez, ekitaldi «xume eta hunkigarri» hauekin Mugicari beraien «maitasuna, mirespena eta errespetua» erakutsi nahi diote.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdia. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Iruira.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroako dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
  - ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitza autobus.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
  - ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

BERASTEGI ▶

## Kostaldera irteera egingen dute ostegunean

Gaztainondo jubilatutako elkar-teak hilaren 19an kostaldera irteera antolatu du. 09:00etan abiatu ondoren, Zarautzen geldialditxo egingen dute, Deba gidarekin bisitatuko dute, bazkaria Zubikarai jatetxean izanen da eta Mutriku ere ikusiko dute. Ize-na ematea, elkartean bertan.

LEITZA ▶

## Barriolak San Fermineko finala jokatuko du gaur

Abel Barriolak San Fermine-tako Txapelketako final handia jokatuko du gaur. Leitza-rra Gonzalezekin ariko da Xala eta Lasa III.aren aurka. Finalaurrekoetan Gonzalez eta Barriola Koka eta Otxandorenari gailendu zitzaizkien, eta Xala eta Lasa III.a, Olaizola II.a eta Beginori.

LEITZA ▶

## Bengoetxea VII.ak lagunarteko jokatuko du Izaban

Bengoetxea VII.ak atzo lagunarteko partida jokatuko zuen Larramendirekin, Mikel eta Zabalaren aurka, Izaban. «Enpresa berekoak gara eta erabat elkarrekin aritzen gara», dio Bengoetxea VI.ak. «Lagunarteko norgehiagokak ezberdinak izaten dira, lasaia joaten dira».



Ibai Bengoetxea. N. GARZIA



## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Alegia.** Karmengo jaiak  
Alegian: 9:00etan dianak eta  
arrantza lehiaketa;  
10:00etan birrindulariak;  
12:00etan sagardo  
dastaketa eta trikitixa;  
18:30ean herri kirolak;  
21:00etan zahagiardoa;  
22:30ean pilota eta  
24:00etan makro diskoteka.

**Alegia.** Benjamen eta  
infantilen mailakoa izango  
da jaien baitakoa (6-10 eta  
11-14 urte bitartekoak).  
Izena Tolosako Usabal  
Kiroldegian eman behar da  
(osteguna arte), bestela  
Tolosako arantzaleen  
elkartean, 19:00etatik  
20:00etara (ostegunean).

**Berastegi.** Gaztainondo  
jubilatuko elkarrekin hilaren  
19rako kostaldera irteera  
antolatuta du. 09:00etan  
abiatuko dira. Izen-ematea  
elkartean.

**Villabona.** Hileko bigarren  
larunbatetan, EHNA egiteko  
aukera dago Kultur Etxean.  
Hiru argazki, 15 euro eta  
errola agiria eman behar  
dira. Abuztuan ez da izango  
aukerarik EHNA egiteko.  
Irailan hasiko dira  
berriro.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

**Leizta.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
**Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46.  
943 673274.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen  
egunkarian adierazitako esanen eta  
iritzien erantzukizunik.

## AGURRAK ▶



### ZORIONAK!

Marta eta Xabi! Zorte on zuen abentura berri honetan eta ondo pasa zuen ezkontza egunean! Familiaren partetik.

# Gaztetxea haurrei gerturatzen

**ANOETA ▶** Gazte Asanbladak umeen festa antolatu zuen atzo arratsaldean, «herriko gaztetxoei Gaztetxea gerturatzea» helburu zuen ekimenean



Umek ederki igaro zuten Gazte Asanbladakoek antolatutako jolasekin; helburua Gaztetxea umeei gerturatzea zen. I. GARCIA

### ERREDAKZIOA

**B**eroa present izan zen atzokoan Anoetan. Bertan, Gazte Asanbladak antolatuta, Ume Festa antolatuta, Gaztetxea haurrei gerturatzeko helburuz. Herriko 45 gazteko inguru izan ziren, beraz, protagonista eurentzat prestatutako arratsaldean.

Herriko plaza izan zuten topagune eta, kalejiran, Gazte-teraino heldu ziren. Lehenik eta behin, jolasak egin zituzten eta, ondoren, sabelak ederki asetu zituzten, meriendarekin.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza  
LEITZAN  
Udaletxeko bulegoa
- ▶ HITZAren egoitza  
TOLOSAN  
Araba etorbidea, 5 behea

**hitza** agurren tartea

**EUSKAL JAIA**  
*Billabona*

Uztailak  
**28**  
Larunbata

*Billabonako Plazan*



“SALTO ETA JAUI, EUSKARAZ BIZI!”

**18:00etan** Sagardo dastaketa pintxoekin laguntzarekin Laja, Eguren eta Ziular trikitilariak alaiturik

**19:30etan** BERTSOLARIAK:

Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso

**20:00etan** ERROMERIA:

Laja, Eguren eta Ziular trikitilariak

**21:00etan** Afari herrikoia plazan:

**00:00etan** ERROMERIA: Patxi eta Konpania

**Zikiro Jana**

Garaiko euskal jantziekin parte hartzea animatzen zaituztegu

**Zikiro janerako txartelak salgai: 20€**